

EGUNEKO DIANAK

Miguel Indurain



Txirrindulari atarrabiarrak aurtengo Tourraren garaile handia izateari eutsi egin zion atzo eta etapa irabazi zuen. Lugny eta Macon hirien artean egin zen 57 kilometroko erlojupekoan Indurainek 27 segunduko errenta kendu zion bigarren sailkatuari, Bugno italiarrari hain zuzen. Gaur, Pariseko Garaipenaren Uztaipean, Indurainek lehen euskal mailot horidun izateko aukera sendotu egin du, atzoko indar erakuspena eta gero. / 21-26

Juan Jose Laborda



Espainiako Senatuaren erreforma ondoren senadoreek galegoz, katalanez edo euskaraz hitzegiteko izan lezaketan aukeraren kontra mintzatu da Juan Jose Laborda Senatuako lehendakaria, «Jendarteko iritziko hainbat sektorek Elkarre Autonomoetako hizkuntzak erabiltzea pribilegioa dela uler bait dezakete». / 18

UEU



Atzo amaitu zen Iruñean UEUko hemeretzigarren edizioa, sailburuek Larraonako Ikastetxeko areto nagusian eginiko mintzaldiaren bitartez. Baionan uztailaren 8an eta Iruñean 15an hasitako uda ikastaldien balantzea baikorra izan da UEUko arduradun hauen iritziz, «ekonomia aldetik defizitarik izango den arren». / 8

Lopez Basoa



Herenegun EHUKo Leioako fakultatean izandako indar seguritateen zabalakunde handia «beharrezkotzat» jo zuen atzo Lopez Basoa Soziologia eta Informazio Zientzietako Dekanotzako idazkariak, izan ere, «inoiz ezin bait duzu jakin kontratudunek zer egingo duten». / 7

Sylvie Gizagaitz hamabi urterekin Larrañen kantari

LETXEZAHARRETA / LARRAÑE

Larrañeko elizaren aterpe ederrean iragan zen 'Ohizko Kantagintzaren' kariatara Sylvie Gizagaitz entzun ahal izan genuen. Kanta bat baizik ez zuen eman: Pierra Bordazarre, Iruriko 'Etxahun' aipatuaren 'Goizian argi hastean'. Herriko haur kantarien eta Altxaiko mutil gazte baten ondorekin zetozen. Herriarren aurrean kantatzea proba zaila da edonorentzat. Hamabi urterekin, neska lirainarentzat une baitezpadakoa zitekeen. Eta kanta zetozen bere garapen lasaiean, barneko arnas indartsuarekin, Zuberoak jarria zion nortasun ukazinarekin. Aitzinekoen bidetik, eta zirudien bezala betirako lokarri baten izatearekin. Hor ziren artzainen kanta bakartiak edo ostatuetako koru ezin geldituzkoak, laguntasunak berotu ordutakoak.

«Amiñi bat lotsatirik nindüzün» zion kantari gazteak, arratseko kantaldi luzea bukatu ondoren. Gazte baldin bada ere, dio aspaldian kantuz ari dela. 'Aspaldi' xume horrek etxeko enragina erran nahi du, aita, ama eta guztiena.

Sylvieren kasuan, aitaren eragina handia izan da kantuz hastean: «ene aita kantatzen ari zen Paueko 'Lagünt eta Maita' elkarteko kantari taldean». 'Lagünt eta Maita' kanta baten izena da, Etxahun Irurikoak, gehienik Zuberotarrek osatzen



zuten Paueko euskaldunen elkartearantz moldatu zuena duela 25 urte.

Sylvieren lehen urratsa publikoaren aurrean horrekin lotuta dago: «Euskal Kantu Txapelketan».

SOSLAIA

Kantuan etxean ikasi

Euskal Kantu Txapelketan, Larrañetik etorria zen Sylvie Gizagaitz entzun zen iaz. Bideari jarraiki aurten 'Xalbador' Pastoralaren kariatara, berriro agertzen da kantari gaztea. Sylviek berak azpimarratzen du nola etxean hasi zen kantuan, aitaren exenpluari jarraiki. Etxean lehen urratsak ematen badira, bigarrenak ez dute premia txikiagoa. Herri baten ohiturak, Zuberoan nabariago da hori, asko laguntzen du gazte bat taula gainera atrebiztera. Magali Zubillaga, Aldudeko haur kantaria agertu zen bezalaxe, Sylvie Gizagaitz dator, herri kantaldi baten kariatara.

pelketan 'Lagünt eta Maita' hori eman nuen». Bakarrik ala besteekin kantatu? Larrañeko kantari gazteak «maite du kantatzea». Azken asteotan, Larrañeko herria 'Xalbador' Pastoralaren 'huntzen' ari baita, aitzakia hauta da Sylvieren kantuz aritzeko, bakarka eta taldeetan.

Hamabi urterekin geroa aipa litzateke? Uste du kantariak jarraituko duela. Zein eremutan? Kanta berri, zahar, aukerak gaur egun balirateke. Eta seguru beste hainbeste Zuberoako kantari gazte bezala dio «rocka maite dut, baina ere kanta zaharrrak». Bere kantaririk maiteenetan, lehena Niko Etxart da.


LERRO GUTXITAN

Bere buruari HIES birusak txertatu dizkio apaiz italiar batek

HIESaren aurkako azterketan bere burua aurkeztu du Pierino Gelmini 70 urteko apaiz italiarrak eta gaixotasun honen birusak txertatu. Jokaera hau Roger Mahoney Los Angeles hiriko artzapezpikuak egin dituen eskaerei estuki lotzen zaie. Izan ere, Mahoneyk aldarrikatzen bait du «hirurogeitabost urtetik gora dituzten apaizek beren buruak aurkez dezatela HIES gaitzaren aurkako ikerketetan».

Aztergai bihurtzeaz gain, Pierino Gelmini lau mila gazte HIESdunen zaintzeaz arduratzen diren ehun eta hoge erresidentzien zuzendaria da. Apaiz italiarra abiatu berri da Lourdeserantz beste mila eta bostehun gazte drogamenpeko eta zeropositiborekin.

Gelmini oso ezaguna da Italian droga kontsumoari buruz dituen iritzia direla eta, trafikoa zein kontsumoa zigortzearen alde agertu bait da behin eta berriro.



HEGAN EGITEN ala ipurdiaz saltoka? Oraindik ez dugu batere argi zertan ari diren bi morroi horiek. Telefotoko testu nahasiaren arabera, hala ere, herenegun Hagan jokaturiko *yogazale hegalarien* txapelketan izandako oztopotun 25 metro lasterketako bi partaide lirateke eta Maharishi Mahesh yogi handiaren metodoa praktikatzeko ari dira. Kontua da, zaila dela sinestea bi horiek airean eserita egon daitezkeela eta gainera aurreraka egin. Egia baldin bada, ordea, bi horiek ez dute kanaliz aldatzeko telemandoaren beharrik izango!

Urralburuk Tuterako entzierroan korritu zuen atzo

Gabriel Urralburu iharduneango Nafarroako lehendakariak Tuterako festen hirugarren entzierroan korritu zuen atzo. Foru Gobernuak lehendakariordea den Jose Antonio Asiainekin batera egin zuen lasterketa Urralburuk, tarte arriskutsuenatako batean.

Adoptaturiko haurren hatz aztarnak ezabatzen dituzte Perun

Peruko Justizia Epaitegi Goreneko lehendakariak egindako salaketak dioenez, hatz aztarnak ezabatzen ari zaizkie gerora bikote atzeritarrek adoptatu behar dituzten haurrei. Limako Gobernuak haur adoptatuak babesteko hartu dituen neurrien aurrean ekin diote iharduera lazarri honi haur trafikatzaleek.

OMEren aholkuak aintzat hartzea eskatu zaie mendizaleei

Osasunerako Munduko Erakundeak, OME, nazioarteko erakunde berak emandako aholkuak errespetatzeko eskatu die mendizaleei eta udako oporretan goi mendiaz disfrutatu nahi dutenei. Geneven kaleraturiko agiriaren arabera, goi mendietarako irteerak osasuntsu daudenetzat direla bakarrik esan du OMEk. Hori dela eta erakundeak osasun azterketak egiteko eskatzen die, batez ere bihotzetik eta biriketarik gaizki dabilatzanei. Areago, OMEn ustez, «persona osasuntsuek ere izan dezakete 'mendi gaitz larria' 2.500 metroko altueran egonez gero». Agiri honek plazaratzen dituen aholkuak Suitzako Alpeetan izandako esperientzitan oinarritzen dira.